


# Zumaiako Musika Jaialdia

**Abuztuaren1etik 12ra**

**Abuztuak 1, asteazkena**

**20:00etan: Klarinete laukotea**
**Lekua: Kofradian**

---

**22:00etan: Debako Aitzuri abesbatza eta Zumaiako San Pedro abesbatzaren kontzertua**
**Lekua: Parrokian**

## Klarinete laukotea

Zumaiako Udal Musika Bandan jotzen dugun lau klarinetista gara. Talde hau iaz sortu zen uadaletxetik deitu zigutenean, musikaren hamabostaldian kontzertu bat emateko. Kontzertuaren ondoren oso gustora geratu ginenez, gure irakasleari proposatu genion horrelako beste emanaldi bat emateko gogoz.

Talde hau lau partaidez osaturik dago: Miren Saenz, Jone Larrañaga, Sara Zubia eta Irati Alvaro. 16 eta 19 urte bitarteko gazteak gara. Esan daiteke hau izango dela geure bigarren kontzertua laukote gisa, beste hainbatetan jo izan baitugu baina beti ere musika eskolaren babesean. Laurok urte asko daramatzagu klarinetetako klasean eta baita zumaiako bandan ere.

Entzunaldia obra hauez osaturik egongo da:

1-Hava Nagila.
2-Eperra.
3-Picherine Rag.
4-Bagare.
5- Vois sur ton chemin.
6-Loretxoa.
7- Southern Waltz.
8-I Ystael v'ovaita.
9-Ai se eu te pego.
10- Jericó.

## Aitzuri Abesbatza

Aitzuri Abesbatza 1994an sortu zen Deban. Garai hartan herrian zeuden bi koruak elkartzetik sortu zen. Gaur egun Fernando Urain-ek betetzen ditu zuzendari lanak. Euskal folkloreaz gain, nazioarteko folklorea (iberoamerikarra, espiritual beltza…), polifonia, musika koral garaikidea eta obra sinfónico koralak dituzte bere errepertorioan.

2000. urtean Errenteriako Musika Orkestrarekin W.A.Mozarten Requiema interpretatu zuten. Programa horrekin Euskal Herriko musika ziklo ospetsuetan parte hartzeko aukera izan zuten.

2003an Gipuzkoako bira aipatu behar da eta 2004an berriz, “Villa de Griñon” Abesbatzentzako Gaztelaniazko kanten XIII. Lehiaketan Lehen Saria eskuratu zuten. 2005eko abenduan, aurrez aipaturiko Griñoneko lehen postua ordezkatuz, Murtziako Molina de Segura herriko Gabon Abestien Lehiaketan parte hartu zuten.

Aituri Abebatzak, Debako Udako Musikaldietan hainbat urteetan izan duen partaidetza aipatzekoa da, estilo desberdinetako obrak eskainiz.

## San Pedro Abesbatza

Zumaiako San Pedro Abesbatza 1984 urtean sortu zen, ordura arte bertako San Pedro parrokiko mezetan soilik abesten zuen korua oinarri izan zuelarik. Taldea sortu zenetik, zuzendaritza musikala pertsona desberdinen gain egon da, hain zuzen Jerónimo Egaña eta Agustín Zubimendi, egungo zuzendariak 2008. urtean hartu zuen arte.

Urte hauetan zehar musika estilo ezberdinetara egokitzeko prozesu bat izan du, hainbat emanaldi eskeini duelarik, bai Euskal Herrian baita bertatik kanpo ere.

Oinarrizko helburuetako bat herriko ondare musikala zaintzea da, obra ezberdinak berreskuratuz eta dagoen errepertorioa zabalduz. Era berean, egungo euskal musikagileek idazten duten musika ere lantzen aritzen da.

2009an Errenterian ospatu zen LXIII. Gabon Abesti Lehiaketa 1º saria jaso zuen abesbatza federatuen mailan.

---

***El coro Aitzuri de Deba*** *se formó en 1994 como resultado de la fusión de dos coros existentes. Actualmente la dirección musical recae sobre Fernando Urain. En su repertorio, además de folclore coral vasco, incluimos folclore internacional (iberoamericano, negro espiritual…), polifonía. Música coral contemporánea y obras sinfónico corales.*

*En el año 2000, junto a la Orquesta de Renteria Musical interpretaron el “Requiem” de W.A. Mozart, programa con el que participaron en varios prestigiosos ciclos musicales del País Vasco.*

*En el 2003 realizan giras de conciertos por el territorio guipuzcoano y en el 2004 obtienen el Primer Premio en el XIII Certamen de Canción Castellana para Masas Corales “Villa de Griñon”. En diciembre del 2005 participó en el concurso de canciones navideñas de Molina de Segura en Murcia como vencedor del celebrado en Griñon.*

*Destacar la participación de Aitzuri abesbatza a lo largo de diversas ediciones del ciclo musical de verano de Deba interpretando obras de diferentes estilos.*

***El Coro San Pedro Abesbatza de Zumaia*** *se crea en el año 1984 siendo su origen el coro de la parroquia de San Pedro de dicha localidad. La dirección musical desde su creación ha pasado por las manos de Gerónimo Egaña y de Agustín Zubimendi, hasta que fue asumida por su actual directora en el año 2008.*

*A lo largo de estos años ha sufrido una evolución que le ha llevado a explorar un amplio abanico de estilos musicales, ofreciendo numerosos conciertos tanto en Euskal Herria como fuera de nuestras fronteras.*

*Uno de sus principales objetivos es la recuperación del patrimonio musical de Zumaia buscando tanto recuperar y descubrir repertorio como la difusión del mismo. Asimismo se pretende tener una especial atención a la música de compositores vascos actuales.*

*Durante el LXIII Certamen Provincial de Canciones Navideñas celebrado en Renteria el año 2009, recibió el primer premio dentro de la categoría de agrupaciones federadas.*

## EGITARAUA

***Lehenengo zatia***

Koroatze Meza (Krönnugsmesse KV 317) Wolfang Amadeus Mozart (1756-1791)

- Kyrie
- Gloria
- Credo
- Sanctus
- Benedictus
- Agnus Dei

  *Organo-jolea: Mari Carmen Azpeitia Iparragirre*

***Bigarren zatia***

- The Seal Lullaby — Eric Whitacre (1970)
- Ama Lur — Iker Gonzalez Cobeaga (1976), Hitzak: Bitoriano Gandiaga (1928-2001)
- I never knew — Mold: P. Wittman
- Loreak Udan — Bilintx (1831-1876), Mold: David Azurza (1968)
- Areson Aleka — David Azurza (1968)
- Iru txito — Mold: Aita Donostia (1886-1956)

**Zuzendariak:** Fernando Urain Oñederra eta Amaia Aldalur Goikoetxea.

## Abuztuak 2, osteguna

**20:00etan: Juan Mari Beltran *Orhiko Xoria*,**
**Lekua: Mari kalean**



Bere jarduerarengatik, Juan Mari Beltran euskal herri musikako ikertzaile, eragile eta irudi garrantzitsuenetakoa dugu.

Gaztetik ibili da musika inguruan, lehenik klarinetea eta gitarra jotzen eta ondoren aurreko belaunaldiko herri musikaren testiguaren arduraduna bihurtuz. Txalapartari gisa Bixente bere anaiarekin eta Artze anaiekin parte hartu zuen Jorge Oteizak 60.hamarkadan sortutako artearen euskal eskolan, tradizioan oinarritutako txalapartaren aro berriari hasiera emanez.

Rafael Ruiz Balerdi pintoreak sortutako Musika Garaikideko taldeetan parte hartu du, eta Sustraiak, Azala eta Txanbela taldeak sortu ditu. Joxan Goikoetxearekin ere bikote artistikoa izan da ere. Lan honen fruitua disko desberdinetan argitaratu da.

Herri musika eta instrumentuen ikerketa arloan lan asko argitaratu ditu, bai eta “Euskal Herriko Soinu Tresnak” pelikula eta diskoa ere, euskal herri organografiako dokumenturik garrantzitsuenetako bat kontsideratzen dena.

1985. urtetik txistu, alboka, dultzaina eta txalaparta klaseak ematen ditu Hernaniko Musika Eskolan, non Txalaparta Eskola sortu eta zuzentzen duen. Azken urte hauetan hitzaldiak eta ikastaro desberdinak eman ditu.

1996an, aspalditik garatzen ari zen proiektu bat errealitate bihurtu zuen: Herri Musikaren Txokoa ireki zuen Oiartzunen. Museo honetan, urte askotan zehar bildu duen materiala erakusten digu: instrumentuak, liburutegia, fonoteka, irudi fitxategiak, argazkiak eta filmak.

ARDITURRI (2001), Juan Mari Beltranen lehen lana da bakarlari moduan, nahiz eta seikote bezala aurkeztu. Diskoa Suso Saizek egin du, Maddi Oihenart (ahotsa), Joseba Tapia (trikitixa), Miriam Atxaerandio (biolina), Oihana Irastortza (pandereta) eta Joxan Goikoetxearen (akordeoiak) laguntzarekin.

ARDITURRIn, Juan Mari Beltranek euskal musika tradizionaletik ibilbide oso bat proposatzen digu. Iñigo Monreal, Ander Barrenetxea, Jasone Cámara, Aitor Gabilondo eta Miriam F. Atxaerandio musikariek laguntzen diote zaharra modernoarekin elkartzen, orain arte inoiz entzun ez den sormen eta bizitasuna lortuz.

Baina hori ez da guztia: 2006. urtean lan horren jarraipena etorri zen, ORHIKO XORIA izenburupean argitara eraman zen diskoari esker.

Orhiko Xorian, Juan Mari Beltranek lurrarekiko sentitzen duen zorra adierazi nahi digu. Musika herrikoia lur horretatik sortua baita. Berak musika aske hori hartu eta bizi egiten du, instrumentuetara eta jotzeko era desberdinetara moldatuz. Horrela, lan honetan soinu, erritmo, doinu eta testu zaharrak eta berriak ahal diren konbinazio guztietan batzen ditu.

Lurretik zuzenetik hartutako musika da, baina era berrietan, Juan Mari Beltranen erara. Aurretik musikari herrikoiek egin ohi zuten bezala. Musika bizirik mantendu daitekeen modu bakarrean: tradizioa eta berrikuntza batuz.

---

*Por su trayectoria podemos considerarle investigador, promotor y una de las figuras más importantes de la música popular vasca.*

*Desde joven se vio inmerso en la música, primero tocando el clarinete y el txistu y pronto haciéndose responsable de recoger el testigo de la anterior generación de músicos populares. Como txalapartari formó parte junto a su hermano Bixente y los hermanos Artze de la escuela vasca de arte creada por Jorge Oteiza en los años 60, dando inicio a la nueva era de la txalaparta, basada en la txalaparta tradicional.*

*Ha tomado parte en colectivos como el Grupo de Música Contemporánea, que fundó el pintor Rafael Ruiz Balerdi y creado los grupos Sustraiak, Azala y Txanbela. También ha formado pareja artística con Joxan Goikoetxea. Fruto de todo este trabajo, se han editado diversos discos.*

*Ha publicado numerosos trabajos en el campo de la investigación de instrumentos y músicas populares, así como el disco y la película Euskal Herriko Soinu Tresnak, considerados como uno de los más importantes documentos de la organografía popular vasca.*

*Imparte clases de txistu, alboka, dulzaina y txapalarta en el Conservatorio de Música de Hernani desde 1985, lugar en el que ha creado y dirige la Txalaparta Eskola (Escuela de Txalaparta). A lo largo de los últimos años ha impartido además conferencias y cursos en diferentes foros.*

*Ha conseguido también hacer realidad un proyecto en el que lleva trabajando muchos años: la apertura al público de Herri Musikaren Txokoa (Rincón de la Música Popular) en Oiartzun, museo en el que se recoge el material que ha ido recopilando durante todo este tiempo: instrumentos, biblioteca, fonoteca, y archivos de imágenes, fotografías y películas.*

*ARDITURRI fue el primer trabajo en solitario de Juan Mari Beltran, en formación de sexteto. El disco fue producido por Suso Sáiz y en él colaboraron Maddi Oihenart (voz), Joseba Tapia (trikitixa), Miriam Atxaerandio (violín), Oihana Irastortza (pandereta) y Joxan Goikoetxea (acordeones).*

*En "Arditurri", Juan Mari Beltran propone un completo recorrido por los senderos de la música tradicional vasca. Los excelentes músicos Iñigo Monreal, Ander Barrenetxea, Jasone Cámara, Aitor Gabilondo y Miriam F. Atxaerandio le acompañan en este viaje, en el que logran conjugar lo antiguo y lo moderno con una creatividad y viveza nunca escuchadas hasta el momento.*

*Después de ARDITURRI se publica la continuación de este proyecto, en su interesantísimo nuevo disco,* ***ORHIKO XORIA*** *(Elkar), que se lleva presentando en formato de concierto tanto dentro como fuera de Euskal Herria.*

*En "Orhiko Xoria" Juan Mari Beltran nos muestra que se considera en deuda con la tierra, de la que hemos recibido la música popular; él toma esa música libre y la vive, al siente, la manipula y la adecúa a los modos y los instrumentos tradicionales y actuales que interpretan él y su banda. Así, en este trabajo conjugan sonidos, ritmos, melodías, textos antiguos y nuevos en todas las combinaciones posibles.*

*Es música tomada directamente de la tierra, pero con nuevas formas, al modo de Juan Mari Beltran. Como lo han hecho siempre los músicos populares que le precedieron... de la única manera en que se puede mantener viva la música: combinando tradición y aportación.*

*Además, en 2010, fuimos testigos del nacimiento de una obra maestra sobre la txalaparta, que consta de un libro, un CD y un DVD, donde se trata con absoluta rigurosidad el pasado, presente y futuro de la txalaparta, tal y como lo hemos recibido de nuestros predecesores.*

## Abuztuak 3, ostirala

**22:30ean: Musika eta zinea 'The silent Band', Buster Keaton. Filmak: 'Fatty Jolas Parkean' (*Cony Island*, 1917), 'Ontzia' (*The Boat*, 1921) eta 'Sukaldaria' (*The Cook*, 1918).**
**Lekua: Mari kalean.**

Bere produktora Metro-Goldwyn Meyer etxeari saldu baino lehen, eta zine mutuaren azken urteetan Keatonek hogeita hamar film labur baino gehiago protagonizatu zituen. Film labur horietan Keatonek izugarrizko abilezia akrobatikoak erakusteaz gain, ikusleak harritzeko moduko gag berritzaile eta originalak egiten zituen. Harrezkero ia mende bat pasatu den arren, gaur egun ere gustura ikusten dira eta ez dute orduko freskotasunik galdu.

Komiko ibiltarien semea zen eta hiru urterekin aktore profesionala zen jada, denborarekin eta koskortu ahala, inoizko karrera profesionalik handiena egin zuen zinemagintzan.

1920ko hamarkadan sormenaren gailurrera iritsi zen eta ospe handia lortu zuen, Harold Lloydk eta Charlie Chaplinek egin zioten itzala gorabehera.

Bere ezaugarri nagusia aurpegikera zen, ezbehar handienei ere zirkinik egin gabe egiten zien aurre artista tragikomiko gazteak; hori dela eta, "harri aurpegi" gaitzizena jarri zioten. Keatonek berak grabatzen zituen azkiodun eszenak eta ez zuen espezialistarik erabili nahi izaten akzio eta akrobazia eszenetan.

Zinera soinua iritsi zenean , gainbehera etorri zen eta poliki-poliki aktore karreraren amaiera ekarri zuen horrek.

Egitarau honetan iraupen ertaineko hiru komedia aurkeztuko ditugu:

**'Fatty Jolas Parkean' (*Coney Island)* 1917**

Honetan Keaton eta "Fatty" Arbuckle dira protagonista, Arbucklerekin hainbat film egin zituen iraupen laburrekoak eta ertainekoak. Hainbat nahaspila erromantiko eta bikotekideen arteko eztabaida txikiak kontatzen dira, Estatu Batuetako jolas parke ezagunenetako batean gertatzen direnak.

**'Ontzia' (*The Boat*) 1921**

Itsas giroko film honetan familia baten gorabeherak kontatzen dira. Familiak ontzi berria egin du, Damfino izena jarri diote baina handiegia da eta arazoak besterik ez ditu ekartzen.

**'Sukaldaria' (*The Cook*) 1918**

Beste behin ere "Fatty" Arbucklerekin azaltzen da, honetan Fatty jatetxe bateko sukaldaria da eta Keaton zerbitzaria da. Jatetxean dena hankaz gora dago eta edozer gerta liteke bertan.

-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

*Antes de la venta de su productora a la Metro-Goldwyn Meyer, ya en los albores del cine sonoro, Keaton protagonizó una treintena larga de cortometrajes .En dichos cortos, Keaton, además de dar muestras de su sobrehumana capacidad acrobática, no deja de sorprender al espectador con una serie de gags innovadores y originales que conservan toda su frescura a pesar de cumplir casi su primer siglo de eterna juventud.*

*Hijo de cómicos ambulantes, era a los tres años actor profesional, llegando con el tiempo a realizar una de las carreras cinematográficas más grandes de todos los tiempos.*

*Alcanzó la cima de la creatividad durante los años 20 y su popularidad se vio eclipsada únicamente por el arrollador éxito de otros comediantes como Harold Lloyd y Charlie Chaplin.*

*Una de sus características principales es su expresión facial, la de un joven tragicómico que se enfrenta a las desgracias con absoluta inexpresividad, hecho que hizo que se le bautizara como "Cara de Piedra". Keaton gustaba de rodar él mismo las escenas de acción y se negaba a usar especialistas en las escenas de acción y acrobacia.*

*La llegada del cine sonoro anunció el declive y poco a poco el final de su carrera como actor.*

*Presentamos en este programa tres comedias de media duración:*

***'Fatty en la Feria' ('Coney Island'), 1917***

*Keaton comparte protagonismo con "Fatty" Arbuckle, actor con el que realizó muchas películas de corta y media duración. Cuenta diversos enredos románticos y pequeñas disputas entre parejas dentro de la excitación de uno de los parques de atracciones mas conocidos de Estados Unidos*

***'La Barca' ('The Boat'), 1921***

*De temática marina, refleja las aventuras y desventuras de una familia y su nueva barca, de fabricación casera, de nombre el Damfino y que al ser demasiado voluminosa no dará más que problemas.*

***'Fatty en la cocina' ('The Cook'), 1918***

*De nuevo con "Fatty" Arbuckle, esta vez con Fatty como cocinero y Keaton como camarero en un restaurante donde parece que el desmadre es general y menos comer, puede pasar de todo.*

**Abuztuak 4, larunbata**

**20:00etan: Travellin' Brothers**



Historian zehar ibaien erribera eta deltekin harreman estua izan dute Bluesman handiek eta Blues banda mitikoek.

Travellin' Brothers ez da salbuespena. 2003. urte amaieran sortu zen taldea Bizkaiko Leioa herrian, Bilboko itsasadarraren ertzean, eta benetan inspirazio handia jaso du Nerbio ibaitik eta haren industria izaeratik.

Urte hauetan guztietan beren buruak eratu dituzte taldeko kideek; sei lagun dira, sei anaia, eta gogokidetasuna da haien bertute handienetako bat, eszenatokien gainean erakusten duten jarreran ondo asko ikusten den bezala.

Musika eskarmentu handia du gaur egun Travellin' Brothers taldeak. Zortzi urtetik gora daramatzate gogor lanean, gorantz etenik gabe eta hobetzeko nahia erakutsiz beti ere. Lau disko eta 350 kontzertutik gora haien ibilbidearen erakusgarri.

Klub, areto edo jaialdi haundietan jo ahal dute. Cadibide bezala Cazorla Blues Festival, Hondarribia Blues Festival, Bejar, Cáceres, Barcelona, Yeclajazz, Blues Sur Seine Paris-en edo Cahors Blues Festival Frantzian ere, zerrenda bukaezina da.

Blues mito askoekin jo egin dute urte hauetan: Buddy Guy, Koko Taylor, John Mayall, Canned Heat, Ike Turner, Robben Ford, Susan Tedeschi, Junior Watson, Johnny Winter, Carey Bell, etabar…

2012. urtean, Memphis-era bidaitu dute '28. International Blues Challenge 2012' jaialdian parte hartzeko, Euskal Herriko ordezkariak bezala. Bestalde laugarren lana argitaratu dute ere, "Travellin' Brothers Big Band – Captured Live", zuzenean eta izugarrizko Big Band batekin grabatutakoa.

**Travellin' Brothers:**
Jon Careaga – Lead Vocals
Aitor Cañibano – Guitar & Vocals
Eneko Cañibano - Bass & Double Bass
Ander Unzaga - Piano & Electric Piano
Isi Redondo - Drums
Alain Sancho - Alto Sax

---

*Los grandes bluesman y las grandes bandas de Blues, a lo largo de la historia han tenido una estrecha relación con las riberas y los deltas de los ríos.*

*En el caso de Travellin' Brothers no es una excepción, formados a finales del año 2003 junto a las orillas de la ría de Bilbao, en la localidad bizkaina de Leioa, reciben una gran inspiración del río Nervión.*

*Seis Amigos, Seis Hermanos forman la banda, esta unión familiar es una de sus grandes virtudes, fácilmente palpable en su actitud sobre los escenarios.*

*Travellin' Brothers tienen un gran bagaje musical, en estos ocho años su actividad ha sido frenética y en continuo ascenso y compromiso por la auto-superación. Cuatro discos y más de 350 conciertos avalan su trayectoria.*

*Camaleónicos como pocos, son capaces de tocar tanto en pequeños clubs y salas o en los más grandes festivales. Como ejemplo sus continuas participaciones en Cazorla Blues Festival, Hondarribia Blues Festival, Bejar, Cáceres, Barcelona, Yeclajazz en Murcia, Blues Sur Seine en Paris o Cahors Blues Festival también en Francia, la lista es interminable.*

**Abuztuak 5, igandea**

**19:00etan: Stick Dance Quartet 'Sorpresa kutxa'**
**Lekua: Aita Mari aretoan**




Stick Dance perkusio-laukoteak egitura mota honetarako dagoen literatura zabalaren zati adierazgarri bat ezagutzera emateko asmoz ekin dio proiektu berri honi. 2009ko Abenduan Euskadiko Orkestraren Matinée jardunaldietan eman ziren ezagutzera jende aurrean; izan ere, orkestra horri lotuta daude laukote honetako kideak, eta 2010. urtean ere jardunaldi horietan bertan parte hartu zuten, entzuleen eta kritikoen aldetik oso harrera ona izan zuelarik.

Kontzertuak eta perkusioari buruzko ikastaro pedagogikoak ere eskaini dituzte Bidaxuneko eskoletan, Gasteizen, Zumarragan eta Martxoan *"La percusión: ¡una caja de sorpresas!"* ikuskizuna estreinatu zuten Kursaal Fundazioaren denboraldirako, beraien sormenekoa, eszenografiari dagokionez Idoia Monteroren laguntza izan zutelarik.

*La percusión: ¡una caja de sorpresas!* izenburupean estilo oso ezberdinetako eta instrumentazioari dagokionez oso aberatsak eta era askotarikoak diren lanak entzun ahal izango dira. Era berean, aberastasuna topatuko dugu autore horiek edaten dituzten kulturei erreparatzen badiegu ere. Jatorriari dagokionez bi kontinente ezberdinetakoak: Owen eta Corea estatubatuarrek, Sejourné eta Galiano frantsesek, Zickovick poloniarrak, Lenik kroaziarrak eta Menke alemanak sinatzen dituzte entzun daitezkeen lana. Zenbait partitura, jatorrian beste instrumentu batzuetarako sortutakoak direnak, berraurkitu ahal izango dira orain, laukoteak perkusiorako egokituta.
Horiek guztiak aitzakia perfektua dira eta errepertorioegokia osatzen dute entzuleak perkusioaren aukera solistiko eta tinbrikoetara gerturatzeko, hitzaren esanahirik zabalenean… izan ere, bizitza arrunteko edozein elementu baliagarri baita laukote honentzat musika egiteko.

## Egitaraua

**Stick Dance Quartet**

| | |
|---|---|
| Lover | C. Owen |
| Hablando con él | A. Lafarge |
| Extralurtarren Tribua | E. Sejourne |
| Trio per uno | N.J. Zivkovick |
| La Fiesta | C. Corea |
| Chamade Suite | I. Lesnik |
| On egin | M. Menke |

---

*El cuarteto de percusión "Stick Dance" afronta este nuevo proyecto con el propósito de dar a conocer una parte representativa de la amplia literatura para este tipo de formación. Presentados ante el público en el ciclo de Matinées de la Orquesta Sinfónica de Euskadi en el año 2009, orquesta a la que están vinculados los componentes de este cuarteto, repitieron en 2010 en el mismo ciclo ante la buena acogida por parte de público y crítica. Han realizado también conciertos y clases pedagógicas sobre la percusión para colegios en Bidache (Francia), Zumarraga y en Marzo estrenaron el espectáculo "Una caja de Sorpresas", de propia creación con ayuda en la escenografía de Idoia Montero para la temporada de Fundación Kursaal.*

*Bajo el titulo de "La percusión, ¡una caja de sorpresas!" se podrán escuchar obras de muy diferentes estilos y de una variada y rica instrumentación. Pero la diversidad también la encontraremos en las distintas culturas de las que beben sus autores. Oriundos de dos continentes: los estadounidenses Owen y Corea, los franceses Sejourné y Galiano, el polaco Zickovick, el croata Lesnik y el alemán Menke firman las obras que se podrán escuchar. Alguna de las partituras, compuesta en origen para otros instrumentos, se podrá ahora redescubrir adaptadas para percusión por el cuarteto. Todas ellas constituyen la excusa perfecta y el repertorio idóneo para acercar al público las posibilidades solísticas, tímbricas e innovadora de la percusión, en el sentido más amplio del término... puesto que todos los elementos de la vida cotidiana sirven a este cuarteto para hacer música.*

***Stick Dance Quartet:** Elur Arrieta, Anthony Lafargue, Frederick Chambon eta Jorge Pacheco. **Baxu elektrikoa:** Arkadius Maciejski. **Eszenografia:** Idoia Montero.*

### Abuztuak 6, astelehena

**20:00etan: 'Zinea soinuaren uhinetan', hitzaldi musikala**
**Hizlaria: Iker Gonzalez Cobeaga**
**Lekua: Aita Mari aretoa**

1895eko Abenduaren 28an "Zazpigarren Artea" bezala ezagutzen dugun zinea sortu zen, Lumière anaien eskutik. Ordu arte geldirik zeuden irudiak (koadroak, eskulturak…) mugitzen hasi ziren. Lehen hamarkada

haietako zinea “mutua” bezala ezagutzen badugu ere, ez zen inolaz ere soinurik gabekoa izan. Ia bere sorkuntzatik musika lagun izan baitzuen gela Ilin haietan, ez hori bakarrik, hainbat aretoetan zuzenean soinuak “sortzen” baitziren eta noizbehinka, Georges Melies zinemagile frantziarraren “Le Voyage dans la Lune” filmean gertatzen zen bezala, kontalari batek irudietan gertatzen zena kontatzen zuen.

Soinudun zinearekin ordea aurrerapauso handia eman zen, musika eta soinuak izateaz gain pertsonaiek hitz egin zezaketen, bere ahotsak beraien entzun zitezkeen beraien ahoen mugimenduarekin sinkronizatuta. Gaur egin film bat ikusten dugunean dena aldi berean jasotzen dugu eta normaltzat jotzen dugu. Hau lortzeko, ordea, lan asko egin behar izaten da. Hitzaldi honetan irudien eta soinuaren artean sortzen den uztarduran murgiltzea proposatu nahi diegu entzuleei. Musika Jaialdiaren barne izanik argi dago musikak bere garrantzia izango duela. Musikaren bitartez ikusten duguna aldatu daitekeelako, bai irudien erritmoa baita ikusten dugunaren esanahia ere.

Guzti hau lortzeko irudiak eta bideoak erabiliko dira, film ezberdinetatik hartutako adibideak azaltzeko. Zenbait kasutan teklatuarekin egindako adibideak erabiliko direlarik.
Landuko diren gaiak:

- Mikrofonoak eta ahotsa nola gordetzen den
- Zaratak eta soinuak filmari errealismoa emanez
- Zinerako musika: Motiboak, kolore ezberdinen erabilera
- Nahasketa: dena batera jartzen

**Abuztuak 7, asteartea**

**20:00etan: Kirkit Ensemble**
**Lekua: Komentuan**



"Gizakien benetako hizkuntza da kantua...Kultura eta hizkuntza ezberdinen arteko bakea bultzatzeko gai da". (Yehudi Menuhim, Kantuaren esanahiari buruz)

—

Kirkit Ensemble a capella gure kanturarekiko grinetik sortu da. 2009ko uztailean Bettina Aragonek aspaldidanik buruan zerabilen proiektua pixkanaka gauzatzen hasi zen, bere bidea Oihana Lekuona eta Ane Miren

Odriozolarekin gurutzatzearekin batera. Honela sortu zen hasierako hirukotea, bai pop/rock/folk estiloko, zein kultur tradizio ezberdinetako piezak kantatzeko asmoz.

Gerora Elena Gorrotxategi gurera etorri eta zuzendaritza Angelika Huisgen-en ardurapean utzi genuen, honela gure ahotsen hariek osatzen duten tapiz musikalaren bilbea osatuaz.
Kirkit, nomadek irazkian tapizaren hariak orraztu eta bateratzeko erabiltzen duten tresna da. Tresna erabiltzerakoan soinu berezi bat ateratzen da eta hortik datorkio izena.

Kanturaren nomadak gara gu, gizateriak betidanik bere ahotsaren bitartez sortu dituen paraje musikal ezberdinak zeharkatuz bidaiatzen duten nomadak. **BETTINA ARAGÓN** Ahotsaren Heziketan aditua da. Dantza klasikoa eta garaikdea, zein kontakt inprobisazioa eta Mugimendurako Sistema Kontzientea (Cos Art) ikasi ditu. Ahotsa, Mugimendu eta Arnasaren pedagogian hezitua.

Egun Balentziako "Estudio Dramático" antzerki heziketa zentroko ahots sailaren buru da eta Donostiako "Arte Eszenikoen Tailerra"-n ahots ikasgaia irakasten du.

Era berean, "Bilbao Voz Proyect" egitasmoaren partaide da Juan Carlos Garaizabalekin batera, hitzegiteko zein abesteko ahotsaren inguruko zabalkuntza eta irakaskuntza plataforma. 2009. urteaz geroztik Kirkit Ensemble *a capella* zuzendu eta bertako abeslarietako bat da.

**OIHANA LEKUONA** kanturaren ibilbidea Mikel Errazkin musikari eta konpositorearen gonbidapena jasotzearekin batera hasiko du, mikelerrazkin&HF pop estiloko proiektuan abestuaz. Ahotsaren heziketaren garrantzia kontutan izanik, Bettina Aragonengana joko du. Lantz taldeko folk proiektu musikalaren partaide ere izango da, taldeko hiru ahotsetako bat izanik.

Aurrerago, Donostiako Udal Musika Eskolako konbo batean sartuko da Maje & Majetones taldeko ahotsetako bat izateko, bossa nova, acid jazz, funk, letin eta antzeko estiloak landuaz. Egun Kirkit Ensembleko partaide da.

**ELENA GORROTXATEGI** flautako Goi Mailako ikasketak egin ditu Bilboko "Juan Crisostomo de Arriaga" kontserbatorioan. Aldi berean, Euskal Herriko Unibertsitateko Musika Magisteritzaren Diplomatura eskuratu zuen.

Musikarientzako "Cos Art" metodoan aditua, graduondoko titulua eskuratu zuen Ramon Llull Unibertsitatean eta Cos Art Metodoaren Gorputz Hezitzailearen Diploma "Generalitat de Catalunya"ko Hezkuntza Sailaren eskutik. Musikarientzako gorputz heziketan sakontzeko asmoarekin hasiko da Bettina Aragónekin ahotsa eta mugimendua lantzen eta honela iritsiko da Kirkit Ensembleko partaide izatera 2010. urtean.

**ANE MIREN ODRIOZOLA** Mikel Errazkin musikariarekin ikasiko du abesten mikelerrazkin&HFproiektuaren 10.0 lanean parte hartzeko prestatuaz. Bere eskutik eszenatoki zein estudioak ezagutuko ditu. Geroago ahotsa lantzen hasiko da Bettina Aragonekin eta Donostiako Udal Musika Eskolan sartuko da, Maje&Majetones taldean flautajole eta abeslari moduan, bertan bere lehen konposizioak egingo dituelarik. Egun Kirkit Ensemble taldearen abeslarietako bat da.

**ANGELIKA HUISGEN** abeslaria, abesbatza zuzendaria, flautajolea eta pedagogoa da. Abesbatza ezberdinak zuzendu ditu, horien artean hegoafrikar musikako abesbatza eta banda bat Alemanian. Egun Donostian alemanierazko abesbatza bat eta Kirkit Ensemble laukotea zuzentzen ditu. Ahots inprobisazioa ikasi du Laura Newton eta Diana Rosa-rekin, kantu armonikoa Mongoliako Epi abeslariarekin eta zeharkako flauta irakasle ezberdinekin. Zeharkako flauta jotzen du talde ezberdinetan (musika klasikoa, munduko musikak eta inprobisazio askea). Arnasketa eta kantu tekniketan batetik eta psikologia eta pedagogian bestetik izandako

esperientzia zabaletik, musikaren ondoan gizakia bere osotasunean ardatza duen kantuaren pedagogia bat garatu du.

*Kirkit Ensemble a capella nace de nuestra pasión por el canto. En Julio de 2009 el proyecto que hace tiempo barruntaba Bettina Aragón comienza a tomar forma al entrecruzarse su camino con el de Oihana Lekuona y Ane Miren Odriozola, formando un trío con la idea de cantar piezas de diversas tradiciones culturales y de pop/rock/folk.*

*Más adelante se nos une Elena Gorrotxategi y encargamos la dirección a Angelika Huisgen, completándose así la trama de este tapiz musical, que forman los hilos de nuestras voces. Kirkit es un utensilio que utilizan los nómadas para peinar y unir los hilos del tapiz en la urdimbre produciendo un sonido característico que da origen a su nombre. Nos consideramos nómadas del canto, viajando por los diferentes parajes musicales que la humanidad ha creado desde el principio de los tiempos expresándose a través de su voz.__*

***BETTINA ARAGÓN** es especialista en Educación de la Voz. Estudia danza clásica y contemporánea, Contact Improvisación y Sistema Consciente para el Movimiento (Cos Art). Se forma en pedagogía de Voz, Movimiento y Respiración. Actualmente es jefa del departamento de voz del centro de formación teatral "Estudio Dramático" de Valencia e imparte la asignatura de voz en el "Taller de Artes Escénicas" de San Sebastián.*
*Asimismo forma parte junto a Juan Carlos Garaizabal del proyecto Bilbao Voz Proyect, plataforma para la divulgación y enseñanza en torno a la voz hablada y cantada. Desde el 2009 dirige y canta en Kirkit Ensemble a capella.*

***OIHANA LEKUONA** empieza su experiencia con el canto tras ser invitada por el músico y compositor Mikel Errazkin a formar parte de su proyecto personal mikelerrazkin & HF, grupo de estilo pop. Consciente de la importancia de la educación de la voz acude a Bettina Aragón Hillemann para recibir clases de canto.*

*Participa también en proyecto musical de folk Lantz, como una de las tres integrantes vocales. Más tarde ingresa en un combo de la Escuela Municipal de Música de Donostia-San Sebastián para convertirse en una de las voces del proyecto Maje & Majetones, trabajando así diferentes estilos como bossa nova, acid jazz, funk, latin, etc. Actualmente, es una de las integrantes de Kirkit Ensemble.*

***ELENA GORROTXATEGI** realiza los estudios de Grado Superior de Flauta en el Conservatorio "Juan Crisóstomo de Arriaga" de Bilbao. Durante este periodo obtiene también la Diplomatura de Magisterio Musical en la Universidad del País Vasco.*

*Especialista en Método Cos Art para músicos obtiene el Títu lo de Postgrado en la Universidad Ramon LLull y el Diploma de Educadora Corporal Método Cos-Art por el Departament d'Educació de la Generalitat de Catalunya.*

*Buscando profundizar en el trabajo corporal para músicos, comienza a trabajar con Bettina Aragon voz y movimiento , trabajo que la lleva a formar parte en 2010 del grupo Kirkit Ensemble.*

***ANE MIREN ODRIOZOLA,** aprende a cantar con el músico Mikel Errazkin, que la prepara para formar parte en su trabajo 10.0 del proyecto mikelerrazkin & HF. Junto a él conocerá escenarios y estudios.*
*Más tarde comienza a trabajar la voz con Bettina Aragón Hilleman y entra en el combo de la escuela municipal de música de Donostia, Maje & Majetones como flautista y vocalista, realizando sus primeros trabajos de composición. Actualmente es una de las cantantes del grupo Kirkit Ensemble.*

***ANGELIKA HUISGEN** es cantante, directora de coro, flautista y pedagoga. Ha dirigido diversos coros (entre ellos un coro y una banda de música sudafricana en Alemania) y actualmente dirige un coro alemán en Donostia y el cuarteto de a capella "Kirkit Ensemble".*

*Ha estudiado Improvisación Vocal con Laura Newton y con Diana Rosa, canto armónico con el cantante mongol Epi y flauta travesera con diferentes profesores. Toca la flauta travesera en diversas formaciones (de música clásica, músicas del mundo e improvisación libre). A raíz de su amplia experiencia en diversas técnicas de respiración y de canto, psicología y pedagogía ha desarrollado una pedagogía del canto que pone en el centro junto a la música al ser humano en su totalidad.*

**EGITARAUA**

- •Sprechen mehr als 110 auf einmal: kanon alemana
- •Alilo: georgiar tradizionala.
- •Bridge over troubled water: Paul Simon, mold.: Michael Hayes
- •Ide were were: yorubar tradizionala
- •Ah comme c'est chose belle: 14. mendeko kanon frantziarra
- •After the goldrush: Neil Young, mold.: Laïs
- •Basa andere : Oskorri, mold.: Angelika Huisgen
- •A Natural Woman: Gerry Goffin,Carole King, and Jerry Wexler, mold.: Sharon/Rough
- •Ein Fisch im Wasser: Nina Hagen
- •Haize hegoa: Mikel Laboa, mold.: Angelika Huisgen
- •Mister sandman: Pat Ballard, mold.: Anne Raugh and Deke Sharon.
- •Ding-a-dong: C. Bakker/W. Luikinga/E. Ouwens, mold.: Erich Unterholzner.
- •Hallelujah: Leonard Cohen, mold.: Dake Sharon.

## Abuztuak 8, asteazkena

**22:00etan: Piazzolaren tangoak: Tanar quartet / Sebastian eta Marina dantzariak**
**Lekua: Aita Mari aretoan**



"Dena aldatuz doa, eta Buenos Aireseko musika ere". Esaldi honekin erantzuten zien Astor Piazzollak bera "tango hiltzailetzat" zuten puristei, XX. mendeko tango berritzaile handienetako bat izan baitzen. Eta berritzaile askori gertatu zaion bezala, gutxik ulertu izan zuten.

Astorrek bere musika jente askok maitatzea lortu du. Azerbaiango biolinjolea den Azer Lyutfaliev euretariko bat da, Bilboko Orkestra Sinfonikako partaidea eta konpositore honen omenez sortutako Laukote honen bultzatzaile eta sustatzailea. "Berak tangoaren idea aldatu zuen, liluragarri, hunkigarri eta sakonagoa eginez. Jenioa izan zen, aberatsa, eta hori bere konposizio anitzetan ageri da" azaltzen du. Tanar Laukoteak Piazzollaren musika bere jatorrizko formatu eta musika tresnekin jotzen du (biolina, pianoa, kontrabaxua eta bandoneoia), dantzari bikote zoragarri batekin batera.

Tanar Laukoteak Argentinako konpositore eta bandoneoi jole handia izan zen Astor Piazzollan musikari zor dio bere sorrera. Azer Liutfaliev-ek sortu zuen 2003 urtean, baina soka boskote gisa, musika tresna klasikoekin (biolina, viola, biolontxeloa, kontrabaxua eta pianoa). Formatu honekin hainbat Musika Jaialditan parte hartu du, BOSen Kamara Denboraldian eta Arriaga Antzokian besteak beste.

Argentinar konpositorearen 90. urteurrenarekin bat etorririk, eta omenaldi gisa, oraingoan laukote moduan aurkezten da, eta Piazzollak berak erabiltzen zituen musika tresnekin: bandoneoia, biolina, kontrabaxua eta

pianoa. Tanar Laukotearen asmoa Argentinako konpositore handi honen musika eskeintzea da, berak konposatu zuen bezala, jatorrizko musika tresna eta soinuarekin.

**Sebastian eta Marina**
